



MUNGIAN ETA MUNGIARRENTZAT

Mungiako EAJ-PNVren jardunen gaineko informazio orria

eus
es

EAJ-PNVren helburua Euskadi, Euskal Herria, Europako estatuen artean beste bat izatea da. Baina ez edozelakoa; eta ez edozelan. Bertan bizi diren eta biziko diren pertsonentzako izan beharko du; eurak, herritarrak, dira gure erreferentzia bakarra. Herri txikia gara, erraldioen artean biziraun duena, inperio indartsuen eta estatuen gaindiko indar ekonomikoen eraginpean dagoena. Errealitate horren jakinean gagoz, eta badakigu estrategia egokiak asmatu behar ditugula, guztiontzat nahi dugun gizartea lortzeko. Horretarako aukera bi dagoz: indarra erabiltzea ala negoziatzea. EAJ-PNVk honen alde egingo du; eta, logikoa denez, lagun-lagunekin ez dugu negoziatu behar izaten. Dagoena dago eta daudenak daude. Hori bai, saltatu ezinezko troka sakonak dauzkagu: demokrazia eta jendearekiko errespetua bezalako printzipioak eta gure helburu nagusiak inoiz ez hipotekatzeko erabaki sendoa. Horixe da gure lerro gorria, Espainian zein Euskadin edo Euskal Herrian; eta jakina, Mungian.

Ez gagoz beste batzuek porrot noiz egingo itxaroten egoteko moduan; hori luxua litzateke guretzat. Ezin gara egon dena ala ezer ez. Ibilian jardun behar dugu beti, lortu dugunari eusten eta,aldi berean, aldaketan, urrats txikiak eman eta eman, horrela urrats handiak emateko aukerak prestatzen gabiltzala. Euskadin eta Mungian. Mungian herrigintzan ibiltzea aberrigintzan ibiltzea da. Horixe da gure esku dagoena eta horixe egin dezakeguna.

Urtarrileko Osoko Bilkuran, Mungiako EAJ-PNVk 2018rako aurrekontu proposamena aurkeztuko du. Banandu eta dosifikatu egin behar dira eskuartekoak. Eta erabakiak hartzea dagokigu. Dena da kritikagarria; eta eskertzekoa litzateke alternatibak egotea. Gutxieneko zorrotasunez, hori bai. Mungiako EAJ-PNVren aldetik proposamen bat baino ez da, herritar guztiok gustura eta etxean senti gaitezen Euskadi bat egiten, Euskal Herri bat egiten, laguntzeko proposamen bat, besterik ez.

2018ko aurrekontuetarako EAJ-PNVren proposamena

ATAL OROKORRERAKO IRIZPIDEAK

Aurten Foru Aldundiek egindako zerga bilketa dela eta, gure Udalak ez du dirurik bueltatu beharko, beraz, hasierako aurrekontuetarako izango dugun gehigarri hori (iazkoaren aldean) inbertsioetarako erabili behar dela uste dugu. Ezin ditugu ohiko gastuak handitu, ez dakigu-eta hurrengo urteetan joera hori mantenduko ote den.

Udalaren zorra kitatzeko erabili nahi dugu zati bat. Horrela **2019ko hasierarako gure Udalak ez du ezelako zorrik izango** entitate pribatuekin. (*) UDALA EZIN DAITEKE ZORPETU? BAI, BAINA INTERES OROKORREKO PROIEKTU HANDIAK DITUGUNEAN ETA MAILEGUAK ITZULTZEKO PLAN ARGIA DAUKAGUNEAN; INOIZ EZ "PERTSIANA IGOTZEKO"; OSO ZORROTZAK IZAN BEHAR DUGU HORRETAN.

Gastu arrunterako, hau da, eguneroko zeregina ordaintzeko behar duguna (langilegoa, zerbitzuak eta kontratuak, eguneroko konponketak eta mantenimenduak...) mantendu egin nahi ditugu edo, hobe esan, **orokorrean** %2ko gorakada aplikatuko genuke, PKIrengatiko igoerak kontuak izanda.

Gizarte arloan zerbitzu eta langile gehienak albo herriekazko Partzuergoan (Mankomunidadean) kudeaten dira. Mungiatik prest gagoz mankomunidadea osatzen duten herriak gehitzeko (Mungialde osoa). **Daukagunari eutsi egingo zaio eta indartu egingo da** (Eusko Jaurlaritzak eta Aldundiak ere hala egingo dute eta). (*) GIZARTE ARLOKO ZERBITZUEN KOKAPENA ERE ALDATU EGIN BEHAR DA, BAINA AURREKONTUETAN EZIN ZEHAZTU.

Elkarteentzako diru-laguntzen kopuru orokorra mantendu egin nahi dugu eta **kooperaziorako proiektu guztiak** ere mantentzea proposatzen dugu.

Behargintzako zerbitzuak hazi egin dira azken urteetan eta horri eutsi egin nahi diogu, Udalaren eskumeneko zerbitzuak ez badira ere.

Dauzkagun zerbitzuak mantenduta eta eurretan murrizketarik bat ere egin barik goazen 2018rako berezietara:

Inguru urbanistiko egokia eta jasangarria sortzeko:

Urbanizazio lanak, 2018an **Ibaibide** kalea: espaloiak zabaldu, errepidea konpondu aparkalekuak galdu barik, kanalizazioak... (352.000 €)

Irisgarritasun planerako herrian (accesibilidad) 81.000 €.

Mungiberri deritzogun inguruan urbanizazio lanak: 200.000 € oinezkoentzat batez ere.

Jasangarritasuna: eraginkortasun energetikoa areagotzeko eta bestetik kutsadura gutxitzeko, 2018an 120.000 € **led-argizatzerako**; urtero-urtero aldatzen joango ginateke.

Mugikortasuna:

Herriko bideetan asfaltatze-lanetarako: iaz baino 60.000 € gehiago erabiltzea proposatzen dugu.

(*) **RUGBY ZELAIAREN INGURUAN LUZARORAKO BESTR APARKALEKU BAT SORTZEA ZEN GURE ASMOA, ERDIGUNETIK 5 MINUTURA DAGOEN APARKALEKU SAREA HEGOALDEAN OSATZEKO. URGAINETZATZEKO GUNEA DELA ETA EUSKO JAURLARITZAK EZ OMEN DU ONARTUKO. KONPROMISO HAU EZINGO DUGU HORRELA BETE; BESTE ALTERNATIBA BATZUK BILATU BEHARKO DITUGU, BERAZ.**

Auzoetan gure konpromisoari utsita, iaz bezala 125.000 €. Auzo bakoitzagaz adosten gabiltza zertan gastatu behar den. Baina, gainera, auzoetarako beste partida batzuk proposatzen ditugu:

Zabalondon urbanizazio lanak Artetxe alboko etxeetan, euriteek eragindako arazoak konpontzeko (60.000 €); **Larauo** auzoko saneamendua 215.000 €, auzo osoa batuta geratzeko; auzoetako hilerrietan konponketa lanak egiteko 20.000 €

(*) **EMERANDOKO ETXE BATZUK UR-SARE OROKORREAN KONEKTATEKO LANAK KOSTE HANDIA DAUKA (MILIOI BAT INGURU). UR PARTZUERGOAREKIN EGINDAKO GESTINOEN OSTEAN ZATIKA ETA JABEEKIN ADOSTUTA EGINGO DUGU. AUZOKOEKIN KONTAKTUAN DAUDE GURE ORDEZKARIAK.**

Gazteen arlokoak bereziki: geure egin ditugu aurkeztu dituzten hainbat proposamen:

Gimnasia kalean egiteko instalazio bat oraingoz (wor out) 8.500 € eta Mungirockerako eskenatoki barria, 8.000 €

Etxeak alokateko gazteentzako laguntzak, 25.000 €. Araudia udal talde guztien artean adosten saiatuko gara.

Kirol instalazioetan: paddle-pisten aterpeak konpontzeko 23.000 €; eta gimnasioetan aire egokitua jartzeko 105.000 €.

100.000€ **beharrezkoak diren hainbat proiektu erredaktatzeko**. Euren artean, Olalden (beti ere polibalentzia gordeta) jasangarritasun energetikoa eta klimatizazioa hobetzeko proiektua.

Uriguen **Udal Haurtzaindegian** 100.000 €, barrizatzeko proiektuagaz jarraitzeko.

Euskararen sustapenean, 2018an, lehenengoz, erakunde guztiek eta herri ekimenek bat eginda proiektu bat daukagu: **Euskaraldia**. Ekintza eta beharrianak zehaztu ahala proposatuko ditugu beharrezko partida ezohikoak.

Herri Teatro bat egiteko unea delakoan gagoz. **Herria egiteko modu bizia** izan da eta kolore guztietako herritarrak batzeko modua da. Martxan ipintzeko kantitate bat proposatuko dugu.

EAJ-PNVrentzat herritarrek **parte hartzearen kultura zabaltzea** oinarritzkoa da; auzolana. Helburu zehatzekin eta frustraziorik sortu gabe (Igerilekuagaz egin du Udalak; eta Goietako aterpeagaz; eta Euskera Foroekaz; eta San Pedro jaiekin...). Eta ahalik eta adosen, hortik joteko asmoa daukagu.

BERREAGAMENDIKO C. DE PROPIETARIOS (BILBAINA): MUNGIKOKO EAJ-PNVTIK SOLUZIO-PROPOSAMEN BAT AURKEZTU DIEGU, BILBAINARAKO SORTUTAKO ALDERDI POLITIKOAGAZ ETA UR PARTZUERGOAGAZ LANDU ETA GERO. SOLUZIO ITZELA IZANGO LITZATEKE BERREAGAMENDIKO AUZOKOENTZAT ETA INTERES OROKORRA GUZTIZ BABESTUKO LUKE (OINARRIZKO BI BALDINTZAK). KOMUNIDADEKO JUNTAK EZEZKOA EMATEN DIO BERBA EGITEARI BERARI, ETA EPAITEGIETARA JO BAINO EZ DU NAHI. (ZAILA DA HAU ULERTZEA, COJUA ORGANUAREN EBAZPENAK ETA BESTE EPAI BATZUK IKUSITA; ETA GUTXIAGO KONTUAN IZANDA HORRELA JARRAITZEAK AUZOKOEI SORTZEN DIZKIEN GASTU ITZELAK). GURE ALDETIK EKIN ETA EKIN JARRITUKO DUGU.

Manteniendo y mejorando los servicios que tenemos (sin ningún tipo de recorte) vamos a las propuestas distintas para 2018:

Medio ambiente y urbanismo: Mungia para todas las personas y para las del futuro.

Urbanización de calles: ahora el entorno de **Ibaibide**: anchar aceras, arreglar la calle sin perder aparcamientos, canalizaciones... (352.000 €)

Plan de accesibilidad: 81.000 €: aceras y obstáculos.

En lo que denominamos **Mungiberri** trabajos de urbanización, pensando sobre todo en los peatones: 200.000 €.

Sostenibilidad: para aumentar el ahorro energético y contribuir a disminuir la contaminación, este año, 120.000 € para iluminación por **bombillas led**; el plan de inversiones exigiría poner algo durante varios años.

Movilidad:

Para el **asfaltado** de las calles del municipio, vemos la necesidad de aumentar la partida (mientras sea posible); este año proponemos 60.000 € más que en 2017.

(*) NUESTRO PLAN ERA CREAR OTRO APARCAMIENTO DE LARGA DURACIÓN EN LA ZONA DEL RUGBY, PARA COMPLETAR LA RED DE APARCAMIENTOS LIBRES A 5 MINUTOS DEL CENTRO. EL GOBIERNO VASCO NOS COMUNICA QUE NO SERÁ POSIBLE MIENTRAS SEA ZONA INUNDABLE. NO PODREMOS CUMPLIR, PUES, ESE COMPROMISO Y TENDREMOS QUE BUSCAR OTRAS ALTERNATIVAS.

Barrios: cumpliendo nuestro compromiso serían 125.000 € para barrios. Estamos acordando en cada barrio su utilización. Pero además de eso planteamos otras inversiones:

Zabalondo: 60.000 € en para evitar los problemas de las lluvias en las casas junto a Artetxe; para completar el saneamiento de **Laraudo** 215.000 €; para arreglos en los **cementerios** de Markaida y Laukariz 20.000 €.

(*) LA CONEXIÓN DE UNAS QUINCE CASAS DE EMERANDO CON LA RED GENERAL DE AGUA TIEN UN COSTE ALTO (MÁS DE UN MILLÓN DE EUROS). DESPUÉS DE LAS GESTIONES REALIZADAS CON EL CONSORCIO DE AGUAS, SE HARÁ POR PARTES Y ACORDADO CON LOS VECINOS Y VECINAS, CON QUIENES ESTÁN EN CONTACTO LOS RESPONSABLES MUNICIPALES.

Juventud. Haciendo nuestras diversas propuestas, esto es lo que propondremos:

Pequeñas instalaciones para hacer gimnasia en la calle (wor out) 8.500 € y el escenario nuevo de Mungirock 8.000 €.

Ayudas a jóvenes para alquiler 25.000 €. Trataremos de consensuar el reglamento entre todos los grupos municipales.

En **instalaciones deportivas**, para arreglo de tejados de pistas de paddle 23.000 € y para colocar aire acondicionado en gimnasios 105.000 €.

100.000€ **para la redacción de diversos proyectos (paso previo a realizarlos)**; especialmente para Olalde el proyecto de eficiencia energética y climatización.

Guardería municipal de Uriguen: 100.000 € para trabajos de acondicionamiento.

En cuanto a la promoción del Euskera, en 2018, por primera vez, todas las instituciones y las iniciativas populares tenemos un proyecto en común: **Euskaraldia**. A medida que se concreten las necesidades y actividades propondremos la habilitación de partidas.

Creemos que es momento de **hacer** un nuevo **Herri Teatroa**. Es una manera muy importante de **hacer pueblo** y de juntar en un proyecto común gente de todos los colores. Proponemos una cantidad para ponerlo en marcha.

Para EAJ-PNV la **cultura de participación** activa y de implicación de la ciudadanía es fundamental. Una participación seria y que no genere frustraciones (el Ayuntamiento lo ha realizado con las piscinas exteriores, con la zona de juegos de Goieta, con los Euskera Foroak, con las fiestas de San Pedro). Incrementaremos estos programas.

C. PROPIETARIOS DE BERREAGAMENDI (BILBAINA) DESDE EAJ-PNV DE MUNGIA LES HEMOS PRESENTADO UNA PROPUESTA DESPUÉS DE TRATARLA TANTO CON EL PARTIDO CREADO PARA LA BILBAINA, COMO CON EL CONSORCIO DE AGUAS. ESTA SOLUCIÓN SERÍA MUY VENTAJOSA PARA LOS VECINOS Y VECINAS DE BERREAGAMENDI Y COMPATIBLE CON EL INTERÉS GENERAL. PERO LA JUNTA DE LA COMUNIDAD SE NIEGA A OTRA SOLUCIÓN QUE NO SEA LA JUDICIAL (ALGO QUE NOS RESULTA INCOMPRESIBLE, VISTOS LOS DICTÁMENES DE LA COJUA Y OTRAS RESOLUCIONES, ASÍ COMO LOS GASTOS QUE LES ESTÁ SUPONIENDO A LOS MIEMBROS DE LA COMUNIDAD). NOSOTROS LO SEGUIREMOS INTENTANDO.



MUNGIAN ETA MUNGIARRENTZAT

Hoja informativa de EAJ-PNV de Mungia

es
eus

EAJ-PNV tiene como objetivo conseguir que Euskadi o Euskal Herria sea uno más entre los estados de Europa. No de cualquier manera. Deberá ser un lugar para todas las personas que viven y/o vivirán en él; ellas son nuestra única referencia. Somos un Pueblo pequeño que ha sobrevivido entre gigantes, estados centralistas y fuerzas económicas superiores incluso a los estados. Somos conscientes de esta realidad y de que necesitamos estrategias apropiadas para conseguir esa sociedad que queremos para todos y todas. Para ello se puede optar por utilizar la fuerza, o por la negociación. EAJ-PNV siempre ha apostado por buscar la negociación; y, como es lógico, no se negocia, precisamente, con los amigos. Hay lo que hay. Las líneas rojas son los principios (democracia y respeto a las personas) y no hipotecar nunca nuestros objetivos finales. Esa es nuestra línea tanto en Madrid como en Euskadi o Euskal Herria y, por supuesto, en Mungia.

No nos podemos permitir el lujo de estar esperando a que fracasen otros, ni de estar todo el tiempo en el todo o nada. Necesitamos estar siempre en movimiento, conservando lo conseguido y cambiando, dando continuamente pequeños pasos que preparen el terreno para los grandes pasos. En Euskadi y en Mungia. Hacer pueblo en Mungia es contribuir a hacer esa Euskadi que queremos. Eso es lo que está en nuestra mano y lo que podemos hacer.

En el Pleno municipal de enero, EAJ-PNV de Mungia presentará su propuesta de presupuestos de 2018. Hay que repartir y dosificar lo que hay. Y nos toca tomar decisiones. Todo es criticable, pero sería de agradecer que se presentaran alternativas. Con un mínimo de rigor. Por parte de EAJ-PNV es una propuesta para ir haciendo paso a paso una Euskadi, una Euskal Herria, en la que toda la ciudadanía se sienta a gusto y en casa.

Propuesta de EAJ-PNV para los presupuestos de 2018

ATGASTO CORRIENTE: CRITERIOS

Los resultados de tributación de la Hacienda Foral, hacen que Mungia no tengan que devolver parte del dinero adelantado. Ese plus (con respecto a 2017) creemos que hay que dedicarlo a inversiones. No sería prudente dedicarlo a aumentar el gasto corriente, pues no sabemos si ese ingreso se mantendrá en el futuro.

Una parte queremos dedicarla a eliminar la deuda del Ayuntamiento; **así, la deuda con entidades bancarias sería 0 a primeros de 2019** (*) SE PUEDE ENDEUDAR UN AYUNTAMIENTO? SÍ, CLARO, PERO SIEMPRE QUE SEA PARA PROYECTOS IMPORTANTES DE INTERÉS GENERAL Y CON UN PLAN CLARO DE FINANCIACIÓN Y NO PARA "LEVANTAR LA PERSIANA".

Para el gasto corriente (personal, servicios contratados, mantenimiento...) proponemos mantener el gasto, o mejor dicho, **globalmente**, aplicar una subida del 2%, teniendo en cuenta las subidas del IPC.

Los servicios sociales y de asistencia, se gestionan desde la Mancomunidad que engloba a varios municipios. EAJ-PNV Mungia está por la labor de integrar a todos los municipios de Mungialde. Proponemos **por lo menos mantener el gasto sin ningún tipo de recorte y reforzar algunos servicios** (Desde Gobierno Vasco y Diputación plantean lo mismo). CREEMOS QUE HAY QUE BUSCAR UNA MÁS EFICAZ UBICACIÓN PARA LOS SERVICIOS SOCIALES, PERO POR AHORA NO SE PUEDEN FIJAR EN PRESUPUESTO.

Proponemos mantener las ayudas a **asociaciones** (con criterios de reparto según programas o índices) y mantener las **ayudas a la cooperación** y al desarrollo en su integridad.

Los servicios de **Behargintza** han crecido en los últimos años y queremos, al menos asentarlos, aunque no sean competencias municipales.